

Joanes Etcheberri: bizitza eta obra

1. *Datu biografikoak*

Badakigu XVI. mendearen hondarretarantz jaio zela. Non? Ziburun. *Eliçara erabiltceco liburua*-n «dotor teologo ziburutarrak» sinatzen du. Lafitte jaunaren artikulu bat aipatu behar dugu, bestalde, jaiotza data ezagutu nahi izatekotan (1967: 123-128).¹

Dictionnaire des Lettres Françaises (XVI^e siècle, Arthème Fayard, 1951), *Nouvelle Biographie Générale* (D^r Helfer, Fermin Didot, 1856), *Biographie Universelle* (Michaud, 1815), hiru liburuotan bilatu eta hiruetan datu berdintsuak aurkitzen ditu Lafittek: XVI. mendearen erdialderantz euskal idazle bat izan omen zela, Etcheverri (Juan edo Jean) deitua, Nafarroako Tafalan jaioa, apaiza, Teologian doktore.

Euskaraz Jangoikoaren bizitza eta bizitzaren misterioei buruzko olerkiak idatzia, Etcheverri honen lanak Bayonan (1640, in-8^o) argitaratuak izan omen ziren. Baina Vinson eta Barbe-ri esker dakigu Baionan kokatzen den lehen inprenta 1642.ekoa dela: François Bourdot-ena hain zuzen.

Lafitteren ustez, bada, Etcheverri honek guk tesigai duguna izan beharko luke.

Zer dakigu Joanes Etcheberriz?, galdetzen dio bere buruari.

1) Ziburun jaioa dela eta ez Tafallan.

2) Bere hiru anaien garai berean hartu zuela sendotza Bertrand Etxauzengandik. Hauek honela, zera dio Lafittek: lau anaiek sendotza elkarrekin hartzeko beharrezkoa zen parrokiaren denbora luzaz sendotzarik egon ez izana. Eta hau honela izan zen Mauri jaunaren

¹ Patrizio Urkizuk euskarara itzulia aurki genezake Oihenarten lan hau «Oihenarten Atsotitzak eta Poetika berrirakurritz» artikuluan. *Iker*, 8. Euskaltzaindia. Bilbo. 295-328 or.

ondoren Baionako apezpikutzak hutsik izan baitzen (1593.etik 1598.era). Etxauz apezpikutzara heldu eta jarraian hasi baldin bazen bost urte horietan egin gabekoak betetzen, suposa liteke Baiona eta inguruetan (Ziburu barne) heltzeaz batera izango zirela, besteak beste, sendotzak, 1598 edo 1599.ean. Are, sendotza 18 bat urterekin hartzen zuen garai hartako gazteriak. Gure kasuan, bada, Joanes Etxeberriek 1580-1586 urteen artean beharko luke jaioa izan.

3) Teologian doktore zela eta izen handiko gizona zela. Bere adiskideen laudorioak ikustea besterik ez dago honetaz jabetzeko.

4) Ziburuko parrokiari buruzko datuek² zera erakusten dute, 1629. urtean Martin Gastambide zela, oraindik, parroku; baita 1638.ean Jean Haristeguy dela Jean Etcheverry edo Etcheverriren oinordeko izendatua. Baina ez dakigu zein urtetan hartu zuen Etxeberriek Gastambideren tokia.

5) Bere obra ez zela nolana hikoia izan, gugana heldu diren hiru liburu argitaratuez landa, *Egunoroscoa*, senidearteko gutunak, aditz jokoak eta hiztegi bat idatzi omen zituelako.³

6) Haristoik, bere *Paroisses du Pays Basque, pendant le période révolutionnaire* (Pau, 1895) liburuaren lehen alean zera diosku, Joanes Etxeberriren anaia bat midiku ona izan zela eta 1636. urtean liburu bat idatzi zuela, non higiene arauak utzi baitzizkigun. Beste anaia, Pierre Etcheverri edo Dorre, Martin Hoyarçabal kapitainaren bidaien itzultzaile

² Nire ustez, kasu honetan Pierre Lafitte jaunak Haristoiren *St. Jean de Luz et Ciboure. Souvenirs historiques et révolutionnaires avec quelque pages sur le Pays Basque* liburuaren izan du iturri datuok emateko. Izan ere, honela dio Haristoik aipatu liburuan (1895: 80-81):

«*Curés connus de Ciboure... 1629... Martin Gastambide; -- de... à 1638, Jean d'Etcheverry ou Etcheverri, enfant de la paroisse, docteur en théologie, d'abord vicaire, puis curé. [...]*
1638-1656. Jean de Haristeguy, enfant et vicaire de la paroisse, ...»

³ Oihenarten *L'art poétique basque* eskuizkribu argitaragabea plazaratu zuen 1967.ean Pierres Lafitte jaunak. Bertan aurkituko dugu Joanes Etxeberri Ziburukoak idatzi eta argitaratu gabe gelditu ziren zenbait lanen berri.

dugula (liburu hau Baionan argitaratu zen 1667.ean).

Baina badakigu liburu hau 1677.ekoa dela eta ordurako Etxeberriren anaia honek 92-97 bat urte izan behar zituen. Posiblea ote? Ezetz uste du Vinsonek (1891-8: 545).

Urkixo jauna ere bat dator Lafitterekin *Nouvelle Biographie Générale* liburuan erakusten diren datuen ziurtasun ezaz (1909: 513-514). Artikulu honetan Bertrand Etxauzek bataiatu zuela Etxeberri diosku eta 1661.eko maiatzaren 30a baino lehenago hil zela. Hemen *lapsus calami* bat izan du Urkixok, Etxauzengandik sendotza hartu baitzuen, ez bateoa.

Hona hemen Etxeberri Ziburukoaren beraren hitzak (1666: 2): «Bereciqui ni natçaitçu / Ceren eta çureaz, / Conformatua içatu / Bainaiz efcu emeaz. / Nerori anaia laugarren / Ciburuco templuan, / Ceñetariç bici bainaiz / Bigarrena munduan.»

Oihenart, Pouvreauri bidalitako —azken honen hiztegirako zenbait hitz dela eta— 1661.eko maiatzaren 30eko gutunean, «Feu Monsier d'Etcheberry»-z mintzo da.

Lafitte jaunak 1638.ean hil zela dio (1967: 13-14). Nik ez dakit nondik suposatzen duen data hau. 1638.ean, Haristegi da Etxeberri Ziburukoaren oinordeko izendatua. Etxeberri hil egin zelako?

Dena den, Pouvreauk 1640-1660 urteetan zehar ihardun zuen bere hiztegiaren prestakuntza lanetan, eta Oihenartek Etxeberri hila dela dio; beraz, ez litzateke harritzekoa izango 1638. urte horren inguruan hil izana.

Bere hiru anaiei dagokienez (arestian ikusi dugunez, bera anaietarik laugarrena izan eta garai hartan —1635 inguru— bizirik zegoen bigarrena zen), esan digu Lafittek bere 6. puntuan anaia midikuak liburu bat idatzi zuela 1636.ean, baina hau ez da posible *Manual devotioezcoa*-n, P. Gillentena Itxasuko erretoraren «Laudarioa»-n, bere anaia midikua hila dela esaten baita (Etcheberri, 1627: IV): «Damuric etceçufala Anaia medicuac, / Harc

beguia hertfiz guero eguin tutcũ verfuac. / Eçen guehiago çure preça liro artea / Eguin ohi çuen baño biçi cela berea. / Harenac guidatcen çuen gorputça indarrera, / Bañan çureac arima hedoiaren gañera. / Oraiñ ere cantatcen tu çure coplac Ceruan, / Bai eta mereci onez nic behere Munduan."

1636.eko data, beraz, okerrekoa edo berredizio batekoa dateke.

P. Altuna jaunak (1981: 8) Paben ikasi zuela dio, jesuiten ikastetxean, Oihenartek bezalaxe. Badakigu jakin jesuitei buruzko laudorio handiak egiten dituen. Hona hemen, «San Ignatio Lohiyolacoari» eskaintzen dizkion bertsoen arteko hauek (Etcheberri, 1645: 239): «Bereciqui ni natçaitçu / Cordon, ceren curetan / Daquidana ikhaffi baitut / Eäcola fainduetan. / Oraiñ guttiz berriroqui / Ofalluna galdua, / Ceren içan dudan çure / Othoitcez cobratua. / Efquer itçultcẽ darotçut / Ceure iaiat etchean, / Lohiola Iaureguico / Aldare aitciñean.»

Bertso hauetan erakusten zaigu, bada, jesuiten artean ikasi zuela eta Loiolan bertan izan zela *Noelac* liburua idazten bukatzen zegoelarik: 1630.a aldera.

Altuna jaunak egin behar izaten zituzten gutxi gorabeherako ikasketak Humanitateak eta gero gainerako ikasketak (Filosofia, Teologia, Zuzenbidea...) zirela dio. Eta Etcheberri Teologia ikasi ezezik dotore izatera iritsi ere egin zen.

Ezin izan dugu bestelako datu biografikorik bildu baina ataltxo honekin amaitu aurretik ez nituzke *Manual devotioezcoa*-n I. Hegik Etcheberri eskaintzen dizkion «Gratulatur Ioanni Etcheberio» eta Stephanus Hirigoytiren «In laudem authoris» latinezko bertsoak aipatu gabe utzi nahi.

Bertso hauetan erakusten da norbaitek edo norbaitzuek bekaizkoa, ezin ikusia ziotela Etcheberri. Patxi Altunaren ustez (1981: 12 hh.), bekaizkoa dion hori Oihenart da. Beste artikulu batean ere gai honetaz mintzo zaigu (1988: 239 hh.). Ez naiz, bada, ni honetaz

luzatuko P. Altunaren eritziak neure egiten baititut oso osorik. Zera gehitu, baina: aipatu ditugun Urkixo jaunaren artikuluen arteko batean ere (1910b: 220 hh.) argi ikusten dela lapurtarren (Etxeberri kasu honetan) eta Oihenarten arteko gaitzesteak: Oihenartek Etxeberriren hitzen erabilera aipatzen duenean txarto edo bestetara erabiltzen dituela esateko da.

2. Lan argitaratuak

Ez dugu ataltxo hau luzeegi egingo laugarren kapituluko 4.1. atalean zuzeneko transmisioz heldutako testuei ekingo diogunean aztertuko baititut luze eta sakon Joanes Etxeberrik idatzi eta gugana inprimaturik heldu diren liburuak.

Derragun, halere, hiru direla Joanes Etxeberri Ziburukoaren lan argitaratuak, inprimatuak; ezagunak eta eskuragarri ditugunak behintzat. Hiru liburu argitaratuok edizio desberdin ugari ezagutu dituztela kontuan izanik, izendatzeko metodo bat erabili behar genuela eta, Julien Vinsonek *Essai...* liburuan darabilena aukeratu dugu. Lan honetan aztertzen dituen liburuen aurkezpen kronologikoa egiten du, eta liburu bakoitzari zenbaki bat ematen dio. Joanes Etxeberrirenei 14, 15, eta 17 zenbakiak dagozkie. Edizio desberdinak izendatzeko alfabetoko letretara jotzen du (a, b, c...).

Honela, bada, jo dezagun Joanes Etxeberriren hiru lan argitaratuen aurkezpenera: lehena *Manual devotioezcoa* dugu, bi aldiz inprimatua, 1627.ean eta 1669.ean (14a eta 14b edizioak); bigarrena *Noelac* dugu eta honek hainbat edizio desberdin ezagutu izan ditu (J. Vinson 15a, 15b, 15c, 15d, 15e, 15f, 15g, 15h eta 15i edizioez mintzo da), denak 1630-1760 alderako urteen artean; hirugarrena *Eliçara erabiltceco liburua* dugu eta honek izan dituen edizio kopurua ez da ziurregia (vinson 17a, 17b, 17c edizioez mintzo da), zenbait zalantza baitago kontu honetan.

Dena den, guzti hauen gorabeherak laugarren kapituluan ezagutuko ditugu.

3. Lan argitaragabeak

Bere mendeko bi idazleri esker (Oihenart eta Pouvreau) jakin ahal izan dugu Etxeberrik, argia ikusi zuten hiru liburuez landa, beste zenbait izkribu ere idatzi zuela.

Oihenartek, bere *Arte*-an (Lafitte, 1967: 38-39), Etxeberriren bertsogintzaren azterketa egiten du *Manual*-eko adibideak jarritz. Aurkitzen dizkion hutsak direla eta, bere *Noelac*, *Egunoroscoa* eta *Eliçara Erabilzecoa* ez direla hobeak dio. Datu hauen arabera, bada, Etxeberri Ziburukoak *Egunoroscoa* izeneko beste obra bat ere idatzi omen zuen.

Aurrera jarraitzen du bertsogintzaren azterketan eta zera dio, hitz lauz idatzi izan balu garaile aterako zela, inprimatutako obrez aparte, bere senidearteko gutunak, zenbait laguni idatziak, bere hiztegia eta bere aditz jokoek (Oihenartek haren eskuz idatziak ikusi zituenak) ongi erakusten baitute euskaraz izan zuen askitasuna.

P. Altunak *Manual*aren edizio kritikoan (1981:10) *Egunoroscoa* hori *Manuala* bera ez ote den galdetzen dio bere buruari, Etxeberrik titulu osotik «oren oro» aldatu eta «Egun oro-scoa» izendaturik. Aita Akesolok (1970: 6-7) «Oihenarten lan batean beste bat ere aipatzen da: *Egunorozcoa*. Beste xeetasunik ez digu ematen. Eta esan bearra dago orainarte ez dela orren aztarnarik azaldu, eta beste iñork ez duela bere ezagutzerik eman. Liburu berria ote da, lengoez beste bat ote da, ala besteen zatien bat, edo besteen zatien bati eman ote dio Oihenartek izen ori? Gogoan ar dezagun Elizara erabiltzeko liburuak ere baduela zati bat, *Egunorozko othoitz laburrak* titulutzat daramana. Eta, gaiez, berdintsu da *Manual*aren bigarren zatia ere.

Au esanez, ez dugu ukatu nai liburu ori izan denik. Eta iñoizkoren batean agertu baledi, ongi etorria izango litzateke euskal-literaturan. Bai orixe.» diosku.

Eliçara erabiltceco liburuaren 1665.eko edizioaren 435 orrialdeetan zehar hiru atal argi desberdinak aurki genitzake: lehena «calendarioaz edo demboren contuaz tratatua» deritzona eta beste biez hau da liburuan bertan aurkituko dugun aipamena: «Liburu hunen

parteac. Liburutcho hau bi partetan berezten da. Iaquiteco Guirifinoaren eguinbidean, eta orenetaco othoitcetan. Lehenbico partean dire. EGUN OROZCO othoitz laburrac. Doctrina Christiana. Eta Cofeffatceco antcea.»

«Egun orozco» othoitz horiek 1-82 orrialdeetan zehar banatzen dira eta ez dakigu Oihenart atal honetaz ari zenentz egiten zuen aipamena egiten zuenean. Bi lirateke, gure ustez, ikerketa hipotetiko batean jarraitu beharko liratekeen bideak: argitaratu gabe eta, noski, galdua den Etxeberriren laugarren liburu batez ari zenekoa edo, bestela, *Manual devotioezcoaren* bigarren liburuari buruz ari zenekoa.

Ez zaigu, geroztik, beste inor mintzatu Oihenartek aipatzen dituen gainontzeko lan horietaz eta betiko galduak izan daitezkeeneko susmoa dugu.

Badugu, haatik, bere hiztegi horren berri. Vinson aipatuz hasi behar dugu, beronek, bere *Essai...-n* (1891-8: 78), Pouvreauren hiztegiaren agertzen den E erreferentzia Etxeberri Ziburukoari legokiokeela baitio.⁴ Hildo beretik doa Urkixo jauna bere artikulua batean (1909: 513 hh.). Honek uste ez, baieztatu egiten du E hori Etxeberriri dagokiona, bi arrazoi emanaz baieztapen horren erakusgarri:

1) 1909.eko *RIEV*-en argitaratu zuen «Las citas del diccionario de Pouvreau» artikuluan aurki dezakeguna. Artikulu honetan Pouvreauren autografo batez mintzo da. Hau 1665.eko ekainaren 27an bidali omen zion Oihenarti. Autografo honen lehen orrialdean bidaltzen dizkion hitzak eta esaerak Harizmendirenetik eta Etxeberriren hiztegitik eta bestetik bilduak direla dio. Hona hemen, bada, Etxeberri Ziburukoaren hiztegiaren aipamena.

⁴ Mari Jose Kerejetak, bestalde, «Oihenart Silvain Pouvreauren hiztegiaren» (1992: 183) erakutsi nahi duen gauzetako bat zera da: «Pouvreaux bere hiztegiaren erabiltzen duen [H] laburduraren azpian bi iturri daudela: Haranbururen *Devocino escuarra* (Harizmendik moldaturiko edizioa) eta Harizmendiren *Virginaren Officioa*.» Aurrerago doa Kerejeta eta zera diosku gainontzeko laburduren azpiko autoreen aipamenez: «Biek asmatzen dute (Vinson eta Urkixok), gutxi gora behera, laburdura hauen azpian zein autore dauden (O.: Oihenart; A.: Axular; E.: Etxeberri Ziburukoa; L.: Leizarraga; S.: Vinsonek ez du aipatzen, Urquijok Sanguis dela dio). Ez dute alabaina asmatzen M. eta B. eta batzutan S-ren azpian zer dagoen.»

2) 1910.eko *RIEV*-en argitaratu zuen «Notes d'Oihenart pour le Vocabulaire de Pouvreau» artikuluan duguna (1910b: 220 hh.). Ohar hauek 1661.eko maiatzaren 30eko data dute. Artikulu honetan Oihenartek zerrenda batzuetako hitzen esanahia azaltzen dio Pouvreauri. Beraien artean Etxeberriri buruzko⁵ lau aipamen:

– Lehen, 'auencac' hitzaz mintzo denean. Bertan «Feu Monsier d'Etcheberry linterprete, 'antenna'. Mais mal, a mon aduis, car 'antenna' se dict 'maspreza' en basque.» azaltzen du.⁶

– Bigarrena, 'bethurusta'-ri dagokiona. Honela dio: «Etcheberri linterprete 'supercilium' en basse navarre et en Soule lon dict 'bep'urua'».⁷

– «Advertissement sur la derniere explication des motz basques envoyee a monsieur Pouureau» delako ataltxoan honela dio 'hempazea' hitzaz: «Dict Etcheberri, mais on dict comunement 'hompazea', devenir en flé.»⁸

– «Suite de l'explication des motz basques demandee par monsieur Pouureau» ataltxoan, 'aztala' hitzari dagokiola, honela dio: «...Etcheberri en son dictionnaire le prend pour le jarret mais mal a mon aduis.»⁹

⁵ Michel jaunak, *Proverbes basques d'Oihenart* liburuaren hitzaurrean (1847: xxxv), Joanes Etxeberri Sarakoaren *Diccionario trilingüe* aipatzen duelarik, Oihenart Sarako midikuaren lan honetaz mintzo dela dio Pouvreuren hiztegiari egiten dizkion oharretan. Argi erakusten digu, haatik, Urkixo jaunak argitaratu duen artikulua aipatzen dena Etxeberri Ziburukoa dela, ez Sarakoa.

Nire ustez, bestalde, ohar hauek eta beste ikusita, Michel jaunak sarri nahastu zituen Etxeberri Ziburukoa eta Sarakoa.

⁶ Kerejeta 1992: 211-212.

⁷ Kerejeta 1992: 212.

⁸ Kerejeta 1992: 217.

⁹ Kerejeta 1992: 202.

Bi artikulu hauetan,¹⁰ bada, bai Pouvreau bai Oihenarten erabateko frogak ditugu: eskuartean erabili izan zuten Etxeberri idatzitako hiztegia.

Zer gertatu zen, bada, Etxeberri Ziburukoaren hiztegi horrekin? Hor dago kakoa. Gehienek galdutzat jo dute, horrezaz arduratu direnek behintzat. Horien artean Vinson dugu eta ez galdutzat duelako hain zuzen ere (1891-8: 161).

Vinsonek zera diosku, Pouvreauk, bere hiztegian E letraz jarraiarazi dituen hitzak direla eta, E horrek Sarako Etxeberri adieraz zezakeela hau 1730.ean, Larramendiren garaian, ez balitz oraindik bizirik izan. Eta jarraian honako hipotesi honetaz mintzo da: Ezin liteke suposa Sarako Etxeberri 1627-1636.eko Teologian doktore izan zenaren loba edo loba-iloba izan eta Larramendik eskuartean erabiltzeko aukera izan zuen laureletako hiztegia haren osabarengandik jaso izatea?

Hipotesia da, eta hor dago. Guk ere, hasera batean, hipotesi horren aldeko izan nahi izan genuen, aztergai dugun Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galdua berreskura zitekeelako posibilitateagatik besterik ez bazen ere. Baina J. Urkixok, berriz ere, hipotesi hori bazterrarazi dit.

Honek Zarautzeko Frantziskotarren komentuan Sarako Etxeberriren idazlanen eskuizkribuak aurkitu eta, 1907.ean, argitaratu egin zituen. Baina beraien artean ez zegoen

¹⁰ Oihenarten eta Pouvrearen arteko gutuneria ez da bi artikulu hauetan gelditzen; aldiz, nahiko ugaria izan zen eta M.J. Kerejetak lan bikaina egin zuen gutunok sailkatzen eta datatzen. Hona hemen bere ondorioak (1992: 192): «Horrela geldituko litzateke, bada, guztia hurrenez hurren:

1. [Première explication]. *Açurria-fagoa*, 14r-17r folioak.
2. *Suite de l'explication des motz basques demandee par monsieur Pouvreau*. 21 rş-32vş ff. Maiatzaren 12.ekoa, eta nahiz eta zirriborroan ez irakurri urtea 1665 dela ziurtzat eman dezakeguna.
3. *Pour envoyer a Monsieur Pouvreau*, 1665.eko maiatzaren 30.ekoa. 4rş-7vş ff.. (Labrouchen zirriborroan dioen bezala: “Troisième explication”).
4. *Explication de motz basques pour envoyer a Monsieur Pouvreau*. F. 8rş-9vş. (Labrouchen zirriborroan “25 juillet 1665”).
5. *Advertissement sur la dernière explication des motz basques enuoyee a Monsieur Pouvreau*, 11rş-12rş ff. Labrouchen zirriborroan 1665.eko abuztuaren 12(?) Data daramana.
6. Izanbururik eta datarik gabekoa 10rş-10vş eta 13 rş ff.»

laureletako hiztegia eta euskalzaleek galdutzat izan zuten garai hartara arte.

Urkixoren Sarako Etxeberriren obren berredizioan, hitzaurrean (XIV-XV. or.), Vinsonen hipotesiaz mintzo da, eta ez baieztatzeko hain zuzen ere.

Urkixok erakusten duenez, Sarako Etxeberririk berak azaltzen du *Gomendiozco Gutuna*-n nola eta zergatik hasi zen euskaraz, latinez, frantsesez eta espainolezko hiztegi bat moldatzen.

Hauek honela, ezezta ezina da Urkixorentzat dagokigun hiztegia Sarako Etxeberrirena dela eta ez Ziburukoarena. Are, Urkixok ez du ulertzen zertan oinarritzen den Vinson Sarako Etxeberri Ziburukoaren loba edo loba-iloba litekeela suposatzeke. Bere ustez, froga bakarra beraien abizen berbera liteke, baina horrek ez luke ezer erakutsiko abizen hori ugarinetakoa baita Euskal Herrian.

Gu geu ere Urkixoren aldeko gara. Uste dugu Sarako Etxeberririk hiztegi hori Ziburukoarengandik jaso izan balu argi eta garbi utziko zukeela bere izkribuetan. Ez du inolako arazorik bere aurreko idazleak maisu izan eta jarraitzen dituela aitortzeko eta Axular, Materre, Etxeberri Ziburukoa eta gainontzekoak laudatzeko. Bere euskaraz latin ikasteko gramatikan, bestalde, Axular eta Etxeberri Ziburukoaren aipamenak maiz egiten dituenek, ez dugu uste ixilean izango zuenik hiztegiaren kontua.

Batena dela bestearena dela, zer gertatu zen Zarautzeko eskuizkribuen artean ez zegoen hiztegi horrekin?

Urkixok dioskunez, arestian aipatu dugun lana argitaratzeaz zuela M. E. S. Dodgsonen artikulua bat agertu zen Miarritzeko astekari batean. Bertan *El Averiguador Universale*-an agertzen den 1882ko J. M. Sbarbi jaunaren artikulua batez mintzo da Dodgson. Artikulu hori eskuz idatzitako laureletako hiztegi bati buruzkoa da. Dodgsonek Joanes Etxeberri Sarakoarena izan zitekeenentz hauteman zezan eskatzen dio Urkixori.

Sbarbi bera ere uste horretakoa da. Sbarbi jaunak bere eskuizkribua eta Urkixoren berredizioko *Escuararen Hatsapenac*-en 159. orrialdeko fac-similearen konparaketari ekin eta biak esku batez izan zirela idatziak ondorioztatu zuen. *Arte*-an, Urkixo jaunak Sbarbiri eskuizkribua erostea erabakitzen du, honen ondorioak erabatez onartzearen kontrakoa den arren. Urkixo ez dute kaligrafiaren aldetiko Sbarbiren arrazonamenduek asetzen. Berak bi eskuizkribuak esku batenak direla baieztatzeko honako beste arrazonamenduak jartzen ditu:

- 1) Ziurtzat jotzen du Sbarbiren eskuizkribua XVIII. mendekoa dena, lapurtar batek euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta latinez idatzia, eta nahiko urria (202 orrialde).
- 2) Badaude delako eskuizkribuan Sarako Etxeberrik maiz darabiltzan hitzak, besterengan aurkituko ez ditugunak.

Ez dute, baina, Urkixorentzat froga hauek behar adineko pisua Sbarbiren hiztegia Sarako Etxeberrirena dela baieztatzeko. Berarentzat arrastoak besterik ez dira.

Las obras bascongadas idatzi eta urte batzu geroago ere, Dodgson jaunaren eskaera dela bitarte, kontu berberera itzultzen da Urkixo (1934: 605 hh.). Artikulu honetan, *Las obras bascongadas* liburuan azaldu zituen eritziez landa, beste hauek azaltzen ditu:

- 1) Aita Larramendik eskuartean erabili izan zuen Sarako Etxeberriren hiztegia «Bascuence, castellano, francés y Latín» zela dio. Sbarbirenak vascuence, latín, castellano, francés ordea jarraitzen du.
- 2) Sbarbiren hiztegiak ez du inolako zitarik, eta badakigu Sarako Etxeberrik aurreko mendeko idazle lapurtarrenak dituenak.
- 3) Sbarbirena izan zen hiztegian 'hastapena' hitza dugu, baina ez Sarako Etxeberrik darabilen 'hatsapena'.

4) Hitz ugari dira Etxeberrik bere idazlanetan erabili eta Sbarbirenean agertzen ez direnak.

Urkixorentzat, beraz, ez lirateke bat Sbarbirena eta Larramendik eskuartean erabili izan zuen Sarako Etxeberrirena.

Egun, Mitxelena eta Kintana jaunak mintzatu izan dira hiztegi honetaz. Azken honek dioskunez, oso posiblea litzateke Urkixok Sbarbiri erosi zion hiztegia Sarako Etxeberrirena izatea. Arrazoiak? Laureletakoa da eta Etxeberrik eta Larramendik erabilitako hitzak dakartza (Kintana, 1972: 10).